

Tabakalerak ez du ekarriko KMren zerbitzuen galera, Aranbururen arabera

Erredakzioa. Donostia

Tabakalera proiektuak ez du ekarriko Koldo Mitxelena Kulturuneak ematen dituen zerbitzuen galera. Halaxe esan zuen Maria Jesus Aranburu Gipuzkoako Kultura diputatuak, herenegun, Batzar Nagusietan berak eskatutako agerraldian. KM erreferentziako liburutegia da; herrietako liburutegiek ez dituzten funtsak ditu. Beldur gara ez ote duen funtzio sozial hori galduko, esan zion aurretik Jon Lasa batzarkideak (IU-EB). Izan ere, Tabakalerak hartuko ditu Koldo Mitxelena Kulturuneko erakustaretoak, eta eraikinean Euskal Liburutegi Nazionala ezarriko dute, Donostiako Udalak, Gipuzkoako Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak adostutakoaren arabera. Tabakaleraren inguruko akordioaren xehetasunak eman zien Aranburuk talde politikoei, eta esan zien berak ere badituela galderak mahaiaren gainean.